


MAXIXATZEN

GUKA



BIZKARGI MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

40 URTEKO SINFONIAN



...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

IZAR JAI BIZIGUNEA

Lizentzia eta obraren hasiera 2023ko udan



2 eta 3 logelatako etxebizitzak



Terraza handiak



Urbanizazio pribatua; igerileku ireki, jardin
eta partekatutako txoko batekin

**Zatoz eta aukera ezazu zure
gustuko etxebizitza**



MAXIXATZEN 432

2023-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Korapiloa Aitziber Arzallus,
<i>Alferrikako jarduna.</i> | 24 | Guka, Parean eta pareko |
| 6 | Hitz bitan Jose Luis Arrizabalaga,
<i>Herri txiki, infernu handi</i> saioko
erredaktorea. | 32 | Iritzia Jose Ramon Aranbarri,
<i>Itxaropena.</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Amaia Garate,
<i>Ungetorre.</i> | 33 | Zakelmari |
| 10 | Iritziak Josune Herrarte,
<i>Azkoitiko hizkuntza;</i>
Imanol Elezgarai, <i>Biharamuna.</i> | 34 | Erretratua Ione de la Cruz,
Azpeitiko Emakumeen Txokoko
teknikaria. |
| 12 | Erreportajea Bizkargi musika eta
dantza eskolak 40 urte. | 38 | Plazan Bazan |
| 18 | Guka gara | 40 | Akordatzen? Azkoitiko
<i>abarketarien lan ordainezina.</i> |
| 20 | Erreportajea <i>Taghiako herria</i>
<i>eguzkiz blaitzeko.</i> | 44 | Iritzia Irene Elortza, <i>Bakarrik.</i> |
| | | 46 | Euskara Ixabel Jauregi, <i>Jarrerak.</i>
Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua
Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Andoni Elduaen
Aitziber Arzallus
Ane Olaizola
Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu

Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak
Arnaiz Rubio Aprea
Amaia Garate
Josune Herrarte
Imanol Elezgarai

Jose Ramon Aranbarri
Naia Arrizabalaga
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi
Irene Elortza
Ixabel Jauregi
Haritz Alberdi

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale



Babesleak:



PUBLIZITATEA

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 6 AZPEITIA
672 17 89 51



EGUZKI
belardanda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-60 34 47 • AZKOITIA
Urbetari 9 bis • 943-10 00 23 • AZPEITIA

Web-proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santakara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
Sport

Donostia, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 67 • 943-85 20 98
AZKOITIA

**tta
kun
4k**

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA
TABERNA**

Etxeza Etxea, Z/G • 943-85 20 31


ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 02 76
aldako.informatica@gmail.com


**JARRI
ZURE
IRAGARKIA**

bertako
igogailuek | ascensores

Beretako orotarika zerbitzuak
100€-tik /hileko

**Igogailuen mantentze-lanen
eskaintza zorrotzena**

+2.000 bezerak gugan dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus



Alferrikako jarduna



AITZIBER ARZALLUS

Oraintxe ari ginen mahatsak jaten, eta dagoeneko sartu gara ekainean. Txamarrak armairutik kentzeko astirik gabe, bikinia janzteko garaia iritsi zait aurten ere. Eta aurten ere, nahi baino okerrago harrapatu nau. Ez da nobedadea, eta seguruenik hobe nuke ohitzen joango banintz, baina izorratu egiten nau, urtero.

Beti izan dut urteak azkar doazen irudipena. Lehen ere bai, eta urteak pasatu ahala, eta urteak bete ahala, are eta gehiago. 35 bete nituenera arte, adina ez nuen zamatzat. Seguru asko izango zen, gazteagoak ez ezik, zaharragoak ere ikusten nituelako klean. 35 urte betetzeak, ordea, inpresioa eragin zidan. Lehendabiziko aldiz, 40ra bidean ikusi nuen neure burua. Hiru urte eta bederatzi hilabete igaro dira ordutik, eta neure kalterako, inpresio bera izaten jarraitzen dut, eta denbora gutxiago. Urtebete eta hiru hilabete gelditzen zaizkit 40ra ailegatzeko, eta abiadura honetan, bihar izango da hori.

Lehengo batean, psikologoaren kontsultan nintzela atera zen gaia. Egingo nuen komentarioren bat, deiagarria irudituko zitzaion, eta galdezka hasi zitzaidan. Galdetu zidan beldurra ematen al didan urteak betetzeak. Ezetz erantzun nion, beldurra ez betetzeak ematen didala, baina 40 handi hori parez pare ikusteak ere ez didala batere graziairik egiten, kontrakoa esatea gezurra esatea litzatekeela. Jakin badakit egiatan ez dela ezer aldatuko, 40 urte bete bezperako bera izango naizela 40 urte bete eta hurrengo egunean ere, baina zer egingo diogu ba, buruaren lanak, askotan, oraingo honetan bezala, alfer-alferrikakoak.

Bitartean, gazteagoei entzun beharko diet adina zenbaki bat besterik ez dela; eta zaharragoei, oraindik nire urterik onenak iristeko daudela. Duela hamar-hamabost urte nik ere hala esango nien zahartzen ari zirela zioten lagun zaharragoei, eta hamar-hamabost bat barru hala esango diet zahartzen ari direla esaten duten lagun gazteagoei. Eta kontuari bueltaka ari naizela, konturatu naiz hortxe egon litekeela koska, neure adinekoekin edo zaharragoekin ibiliko banintz, agian ez lidakeela horrenbesteko inpresiorik eragingo beste hamarkada bat estreinatzeak. Baina horretarako ere ez nago ba prest.

Hortaz, zer egin dezaket 40 urte betetzeak eragiten didan atzerakadari aurre egiteko? Gauza gutxi, edo gauza asko. Hasteko, betebeharrekin lagatzen didaten heinean, ordura arteko hamabost hilabetei ahalik eta zukurik gehien ateratzea ez legoke gaizki; eta jarraitzeko, ordutik aurrerakoei ere gauza bera egitea onena. Bizitzak bi egun irauten duela dioten arren, batzuetan egun eta erdian bukatzen baita, eta zenbat denbora galtzen dugun txorakeriei bueltaka... ■■■

**BATZUETAN ZENBAT
DENBORA GALTZEN
DUGUN TXORAKERIEI
BUELTAKA...**

Jose Luis Arrizabalaga: "Zenbat eta auzo txikiagoa, orduan eta saio politagoa"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **AITZIBER ARZALLUS**

Kazetaritza ikasketak egin zituen Jose Luis Arrizabalagak (Azkoitia, 1974), eta Orio Produkzioak ETB1entzat ekoizten duen *Herri txiki, infernu handi* saioan ari da lanean gaur egun.

Zehazki, zein dira *Herri txiki, infernu handi* saioan dituzun egitekoak?

Lantaldeko erredaktorea naiz, eta motzean esanda, jendeari informazioa ateratzea da nire zeregin nagusia.

Nola topatzen dituzue saioetako protagonistak?

Produkzioko lantaldea herri bakoitzeko norbaitekin jartzen da harremanetan, eta zerrenda bat bidaltzen digute bospasei bat lagun kontaktuekin. Horiekin harremanetan jartzen gara, bakoitzarekin fitxa bat egiten dugu, eta horiei galdetzen diegu ezagutzen ote duten programan parte hartuko lukeen beste herritarrik. Horrela, zerrendara beste lagun batzuk gehitzen joaten gara, eta denak elkarrizketatzen ditugu, hasiera batean, telefonoz. 30 edo 40 bat minutuko elkarrizketa izaten da, eta dena galdetzen diegu, den-dena: non lan egiten duten, denbora librean zer egitea gustatzen zaien, zer motatako arropa janzten duten, zer gosaltzen duten... Izan ere, ez dugu jakiten zein harimuturri tiraka ailegatu gaitezkeen istoriorik bitxienetara. Handik astebetera, zuzendariordeetako batekin joaten gara herri horretara bisitan, eta aurrez telefonoz egon garen horiekin egoten gara, aurrez aurre. Bisita horietan, batetik, telefonoz hitz egindakoak kontrastatzen ditugu; eta bestetik, saioa non grabatu genezakeen ikusten dugu. Behin hamar bat istorio ditugunean, bilera egiten dugu, eta hamar horietatik sei edo zazpi istorio aukeratzen ditugu.

Nolakoa izaten da grabaketa egun bat?

Bi talde joaten gara, eta talde bakoitzak hiru istorio grabatzen ditu.

Beraz, dena ez da izaten ematen duena bezain inprobisatua; zuek zarete Mikel Pagadi eta Miren

Nogales aurkezleek gero egiten dituzten elkarrizketen sortzaileak.

Zuzendariordeak gidoigileak izaten dira normalean, eta gidoia haiek egiten dute guk emandako informazioarekin. Hala ere, aurkezleek izaten dute inprobisaziorako tartea. Elkarrizketa bakoitza nondik nora bideratu behar duten jakiten dute, baina ez dira gidoi itxi baten mende ibiltzen.

Aurki 250. saiora iritsiko zarete. Zein da programa batek horrenbeste urtean osasuntsu jarraitzeko sekretua?

Jendeari tratu ona ematea. Gonbidatu guztiak gustura gelditzen dira, eta beraiek izaten dira eskerrak ematera etortzen zaizkigunak. Datorren urtean hamargarren denboraldira iritsiko da programa, eta telebistan ezinezkoa da hamar urtez irautea ez baduzu jendea ondo tratatzen. Badira hasieran ezezkoa eman eta gero animatzen direla esatera etortzen zaizkigun herritarrak, eta guk jakiten dugu lotsatienak ere berak espero duena baino zertxobait gehiago emango digula. Jendea eroso sentitzen da gurekin, eta azkenean, ireki egiten da.

Saio gogoangarrien bat aipatuko al zenuke?

Zenbat eta auzo txikiagoa, orduan eta hobeto. Niretzat horiek dira onenak; adibidez: Aizarna, Urdaneta... Auzoa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gehiago ematen du jendeak. Azpaitiko saioa, esaterako, oso polita gelditu zen, baina istorio asko kanpoan gelditu ziren, jende askok esan zuelako ezetz; herri handietan askotan pasatzen da hori. Aldiz, auzo txikietan, batek baietz esaten baldin badu, besteak ere animatu egiten dira.

Ematen duena bezain giro ona al daukazue taldean?

Bai, adin eta era guztietako jendea gaude lantaldean, eta giro bikaina daukagu, grabazio egunetako bazkariak bikainak izaten dira.

Kamera aurrean ere jardundakoa zara...

Bai, baina atzean aritzea askoz nahiago. ■■■



Ungetorre

ARGAZKIA ETA TESTUA: **AMAIA GARATE**

Ungetorre. Euskara-
Islandiera pidginaren
arabera, "ongi etorri".

Badirudi, ordea,
Gipuzkoako arrantzaleak ez
zirela ongetorriak izan
Islandian, eta 1615. urtean
izandako sarraskitik, 32
gutxiago gara. 400 urte
behar izan ziren
berradiskidetzea burutzeko.

Inoiz ez da berandu,
diote. ■■■







Azkoitiko hizkuntza

Demagun gure herria ezagutzen ez duen kanpotar batek galdera egiten digula: "Zein da Azkoitiko hizkuntza?". Zer erantzungo genioke? Norbaitek, agian, esango luke euskara dela Azkoitian berezko hizkuntza. Besteren batek, akaso, euskara eta gaztelania erantzungo luke, biak ala biak hizkuntza ofizialak diren aldetik.

Baina Azkoitian euskara eta gaztelania baino askoz ere hizkuntza gehiago hitz egiten dira. Nork daki Azkoitiko etxeetan zein hizkuntza hitz egiten diren? Esango nuke herriaren historian ez dela sekula gaur adinako hizkuntza aniztasunik egon. Gure herrian 30 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla, apustu.

Azkoitiko berezko hizkuntza euskara da, horretan dudarik

ez, geure-geurea dugu eta euskaldun askorentzat hizkuntza baino askoz gehiago da, gainera; barru-barruan ukitzen gaitu, bizi dugu, eta izan duen zapalkuntzak eta historia lazgarriak min ematen digu. Hizkuntza gutxitua izatearen kontzientzia daukagu eta euskararekiko begirunea eskatzen dugu, erabateko zilegitasunez. Behin baino gehiagotan entzun izan dut "ikas dezatela, hemengo hizkuntza hauxe da eta gu ere beste nonbaitera joango bagina

ZER-NOLAKO INTERESA ERAKUSTEN DUGU GUK HERRIAN BERTAN ENTZUTEN DITUGUN HIZKUNTZEKIKO?

hangoa ikasi beharko genuke". Ez naiz ni argudio horren kontra joango, denak du bere infrentzua, ordea.

Zer-nolako interesa erakusten dugu guk herrian bertan entzuten ditugun hizkuntzekiko? Gure inguru honetara etorritako asko eta asko ere hizkuntza gutxituetako hiztun direla hartu al dugu sekula kontuan? Galdetu al diegu zein den beraien hizkuntza? Adibide bat: gaur egungo azkoitiar asko pakistandar jatorrikoak dira; zenbatek dakigu han 70 hizkuntza ofizial baino gehiago daudela? Gutariko zenbat izango ginatke gai horietako bi aipatzeko? Eta hori Pakistani buruz hitz egiten ari garela bakarrik, pentsa zenbat eta zenbat herrialdetako azkoitiarrak ditugun gure

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Biharamuna

Udalbatza berria dugu herrian, eta emaitzak emaitza (hitz hauek maiatzaren 28aren aurretik idazten ditut, beraz ezin hauen inguruan ezer komentatu), batzuk pozarren eta besteak hortzak estuturik, lau urterako zoria goraka begira geratu den txanponaren aurpegiak erabaki balu bezala. Batzuen zein besteen esker mezu eta autokritika urriaren artean, ospakizun handiena aurreko asteetan buru-belarri ibili diren herriko brigada, igeltsero, garbitzaile eta bestelako beharginena izaten da, merezitako atsedena hartuko dutelako. Asfalto jarri berriaren usaia eta lore landatu berriek ehunka programek baino boto gehiago erakartzen dituzte.

Tradizio ez idatzi bat da hauteskunde ondorengo kortesia azko aurreneko ehun eguneko tartea ematea agintariei, beren lana epaitzen hasi aurretik, kargura moldatzeko. Bada, alderantziz behar luke. Napoleon Elbatik itzultzean bezala, egunik deserosoenak behar lukete horiek agintarientzat. Frantziarren *cent-jours* horien tankerara giza borborrerako egunak behar lukete, oroigarri modura, maiatzaren 29an hasten dena ez dela lau urterako txeke zuri bat, kanpainan agindutakoaren inguruan kontuak emateko tartea baizik. ■

artean eta atera kalkuluak zenbat hizkuntza atera litezkeen.

Gure hizkuntzarekiko aitortza nahi izaten dugu, baina zer aitortza egiten diegu guk beste hizkuntzei? Nola bizi dute beraien hizkuntzarekikoa? Hizkuntza saltsa honetan zer eta nola transmititzen diete beren seme-alabei? Zeren arabiarako hizkuntza hautuak egiten dituzte?

Hizkuntza gutxitu bateko hiztunak ez ote du hurbiltasun handiagoa sentituko beste hizkuntza gutxitu batekiko? Horregatik besterik ez bada ere, beraienetara hurbiltzeko saiakera egin beharko genuke.

Nola egin hori? Bi norabidetako kontua dela esango nuke, eta beraz, bi proposamen egingo nituzke. Alde batetik, jaso ditzagun

Azkoitian hitz egiten diren hizkuntzak, zenbatu ditzagun eta erakutsi ditzagun, bideo grabazioetan jasota (101 L proiektuaren eredura, esaterako), irakurketak eginda, hizkuntza bakoitzeko ipuinak itzulpenekin argitaratuta... Eta bestetik, eman diezaiegun datozen guztiei gure hizkuntzaren berri: zein diglosia egoera bizi duen, historikoki zein ibilbide izan duen, gure nortasunean zenbaterainoko esanahia duen, zenbat hiztun dituen... Seguru nago elkar hobeto ulertzeko bidea emango ligukeela horrek batzuei eta besteoi. Hizkuntzak komunikatzeko baino askoz gehiagorako balio du, elkar ezagutzeko, elkar ulertzeko, elkarrengana gerturatzeko bide ezin hobea eskainiko digu horrek, zalantzarik gabe. ■

EGURALDIARI ESKATZEN
DIODAN GALIZA BERBERA,
LIDA HURBILDU AHALA:
EZ DITZATELA
BAZTERRAK KISKALI

@gabinubeda



Urtaro adina hamarkada, konpas betean

Bizkargi musika eta dantza eskolak Miserikordian hasi zuen ibilbidea duela 40 urte, eta ordutik, hainbat egoitza izan baditu ere, lekualdaketek baino plan aldaketek garrantzi handiagoa izan dute haren historian. Hastapenetan ikasturte bakoitzak berarekin zituen erronkak gaindituta, herritarren artean musikarekiko zaletasuna zabaltzeko lanean dihardute hango kideek.

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Ane Olaizola**.

Azkoitiko Bizkargi musika eta dantza eskolak zorioneko urtea du aurtengoa, ofizialki bidea hasi zuenetik 40 urte bete baititu. Ikastetxea aurretik hasi zen gutxienez lau hamarkada iraungo zuen martxaren lehen notak ematen. Lehen doinu haietatik etenik gabeko konpasak lagunduta gainditu ditu eskolak hastapenetako urteak, suertatutako plan aldaketak eta aurrean izan dituen garai berriak.

Marijose Arregi egungo zuzendariak ondo baino hobeto ezagutzen du musika eskolaren historia, hasieratik baita hango partaide. Hark azaldu duenez, Arregi eta Pilar Elorza zena hasi ziren piano eta akordeoi eskola batzuk ematen, 80ko hamarkada hasterako. "Garai hartan ez zegoen musika eskolarik, eta musika ikasten ari zirenek Donostian egin behar izaten zituzten azterketak. Ondoren, Donostiako kontserbatorioko irakasleak herrira etortzen hasi ziren azterketak zuzentzera, baina haiek hara eta hona ibiltzea ere korapilatsua zela eta, musika eskolak ofizialki sortzea eta azterketak eskola bakoitzak egitea erabaki zen".

Elorzak eta Arregik aurrez zituzten ikasleekin hasi zuen ibilbidea Azkoitiko musika eskolak Miserikordian, eta Arregik gogoratzen du orduko guraso elkarteak erabat inplikatu zirela proiektua martxan jartzeko. Musika eskolek 66ko Plana zuten bide orritzat 80ko hamarkadan, eta ikastetxeak programazioa gauza zezan, Gaztanenea eraikineria lekualdatu ziren 1985ean. Arregiren arabera, ez zen hasiera erraza izan. Zegokion baimenak eskuratzear gain, titulazioa zuten beste hainbat herritarrekin harremanetan jartzea izan zen musika eskolaren lehen egitekoa. Guztira, lau irakaslerekin hasi ziren eskolak ematen Bizkargin, eta eraikinak eskaintzen zituen "aukerak" aprobetxatuta jarri zuten hura abian. Dena den, uste baino hasiera txarragoa izan zuen ibilbide berriak: "Izugarrizko elurtea egin zuen urtarril hartan, justu ikasturtea hasi behar genuenean. Elurteagatik guztia gelditu egin zen; pentsa, urte hartan ikasturtea luzatu egin zen eskoletan, beranduago hasi zutelako".

Ikasturte bakoitza "erronka" zen musika eskolako kideentzat, baina pixkanaka, musika tresnen aukera zabaltzen hasi zirela azaldu du zuzendariak. "Aurreneko etapan, pianoa, biolina, klarineta eta ezer gutxi gehiago ematen genituen". Dena den, 90eko hamarkadaren hasieran, LOGSE hezkuntza plana jarri zuten indarrean, eta horrek berebiziko aldaketa eragin zuen eskolaren lan dinamikan eta metodologian. "Plan hark aukera eman zigun musika eskolak gaur egun direnara egokitzeko. Ordura arte, programazio zehatz baten bidez, ikasleek ikasketa ofizialak egiten zituzten, eta haiek titulazioa lortzera bideratzen ziren. Baina herritar askoren nahia ez zen hori. Ikasleak musikarekiko afizioa izatea zen gure asmoa ere, eta LOGSE dekretuak askatasun gehiago eman zigun beste gai batzuk lantzen hasteko. Izan ere, lehen musika klasikoa soilik lantzen genuen, eta ordutik, beste estilo batzuk eskaintzen hasi ginen: folka, jazz, rocka...". Duela hiru hamarkada pasatxo hasitako etapa hari jarraitzen dio oraindik Bizkargik,

Marijose Arregi Bizkargi musika eskolako zuzendaria eta irakaslea eta Ane Alberdi irakaslea.



tartean egoitza berri bat estreinatu bazuen ere. Izan ere, 2015ean Gaztanenea utzi eta Elkargunearen ondoan dagoen Musikagunera lekualdatu zen eskola. "Orduan, lekuz aldatu ginen, baina musika eskolak bere proiektuarekin jarraitu zuen. Ikasketei zegokienez, ez zen aldaketarik egon".

Arregik azaldu duenez, ikastetxeak "apustu sendoa" egin zuen LOGSE plan aldaketa iritsi zenean. Garai zailak izan zirela gogoratu du, besteak beste, eskolaren egoera ekonomikoa ez zelako ona. Horregatik, irakasle berriak kontratatzeaz gain, ikasleak erakartzeko saiakera berezia egin zuten: "Erronka nagusia izan zen ikasleei eta gurasoei aldaketa zertan zetzan ondo azaltzea. Aurreko plana amaitzerakoan eta LOGSE plana hasterakoan, eztabaida asko egon ziren, baina herritarrek ulertu zuten gure apustua". Plan aldaketa haren ondoren, 1996. urtearen inguruan, hasi ziren Bizkargin euskal musika eskaintzen: euskal dantzak, alboka eta trikitia, besteak beste. "Apustu indartsua izan zen hori, ez genekielako zer erantzun izan zuen. Zuzendaritzak gurasoak ere bazeuden, eta udalaren laguntzarekin, aurrera egitea erabaki genuen. Irabazten atera ginen, apustua ondo atera zitzaigun".

Era berean, testuinguru horretan hasi ziren musika eskolak umeei musika hizkuntza eta musika tresnak aldi berean eskaintzen, eta garai hartan hasi zen Bizkargi 3-7 urteko umeei musika tailerra ematen. Azkoitiko musika eskola aitzindaria izan zen horretan: "Artean baimendu gabe zegoen 3-7 urteko etapan musika hizkuntza ematea, baina pixkanaka, indarra hartzen joan zen. Hain zuzen, gurasoei ziklo hori zer zen azaltzeko eta zaletasuna sortzeko, musika tailerretan zer



egiten genuen jendaurrean erakustera joan ginen hamar urtez herriko ikastetxeetara".

Handitzen eta aldatzen

Bizkargirentzat mugarrira izan zen plan aldaketaren aurrekoa da Ane Alberdi musika eskolako ikasle ohia eta irakaslea. 7 bat urterekin hasi zen hura Bizkargi musika eskolan, hasieran biolina ikasten eta ondoren zeharkako flauta. Gaztaneneako oroitzapen politak ditu hark: "Hango baldintzak, beharbada, ez ziren oso onak, baina ikasgelek xarma handia zuten, eta ingurua ere oso polita zen". Ordutik, ordea, musika eskolak jauzi handia egin duela azpimarratu du hark: "Ikasle nintzen garaian, musika klasikoa ikasten genuen gehienbat; horretara bideratzen ziren ikasleak. Egun, baina, ikasleek eskatzen duten horretara jotzen dugu. Izan ere, horiek ikasten ondo pasatzea da gure asmoa". Bat dator horrekin Arregi ere: "Askok esaten dute oraingo maila ez dela lehengoa bezalakoa. Lehen gertatzen zen bezala, ordea, adinean aurrera egin ahala, gutxi batzuek jarraitzen dute musika ikasten, eta lehen ere ikasketetan aurrera egiteko asko ikasi behar zen".

Irakasleen arabera, musika eskolan beste modu batean irakasten dute egun. "Musikarekiko zaletasuna piztea da gure funtzio nagusia da, eta horretarako tresnak ematen dizkiegu ikasleei. Musika hizkuntza ikasten dute, eta hori oso aberasgarria da, belarria lantzeak, besteak beste, gaitasun asko ahalbidetzen dituelako. Gero, norberak nahi duen bidea hartuko du".

Batak zein besteak argi dute Bizkargi musika eta dantza eskola musikaren zein musikarien harrobi bihurtu dela. "Musika eskolako

**TITULAZIOA ZUTEN
HERRITARREKIN
HARREMANETAN
JARTZEA IZAN ZEN
LEHEN EGITEKOA**

**"LOGSE HASTERAKO
EZTABAIDA ASKO EGON
ZIREN, BAINA
HERRITARREK ULERTU
ZUTEN GURE APUSTUA"**



Bizkargi musika eta dantza eskolaren kanpoaldea.

"GAZTANENEAKO IKASGELEK XARMA HANDIA ZUTEN, ETA INGURUA ERE OSO POLITA ZUEN"

"GURE FUNTZIOA DA MUSIKA ZALETASUNA PIZTEA; HORRETARAKO TRESNAK EMATEN DIZKIEGU IKASLEEI"

jarduna uzteko garaia iristen zaie gazteei, eta beste gauza batzuk egiten hasten dira. Inork musikarekiko zaletasuna baldin badu, baina, herrian hor ditu Musika Banda, dantza taldeak edota abesbatzak". Bizkargi Musikagunean kokatuta dagoenetik, alboan du Musika Bandaren egoitza, eta gainera, Bizkargiko Banda Gazteko eta Azkoitiko Musika Bandako zuzendaria berbera da: Carlos Muñoz. "Bataren eta bestearen arteko zubi lana egiteko aproposa izan daiteke hori. Azken urteetan elkarren ondoan izaten dira bi bandak, gainera, eta lotura hori antzeman egiten da. Izan ere, eremu berean egoteak gauzak erraztu egiten ditu, eta azken urteetan, Azkoitiko Musika Banda gaztetu ere egin da", esan du Arregik.

Musika eskola handitzen joan da urtez urte, eta lau irakasle eta 175 ikasle izatetik hamazazpi irakasle eta 500 ikasle izatera igaro da azken lau hamarkadetan. Musika eskolako kideek badakite kopuruak "altuak" direla, eta musika eskola indartu ez ezik, saretu ere egin dela azaldu dute; izan ere, Musika Eskolen Elkarte osatzen duten 65 ikastetxeetako bat da Azkoitikoa. Ildo horretan ere, jauzi handia egin du azken urteetan Bizkargik, musika eskolak emateaz gain, beste hainbat egitasmo ere jarri dituelako abian: "Lehen ikasleak ikasketetara zein kontserbatoriora bideratzen ziren, eta listo. Orain, ordea, ikastetxeek elkarlanean Musikaldia antolatzen dugu bi urtero, eta gure ikasleak beste ikasle batzuekin elkartzen dira; polita izaten da ikasleak beraien artean nahastea. Ikasleek egitasmo horien oroitzapen ederrak izaten dituzte". Bizkargik begi bistan ditu azken konpas betez emandako pausoen fruituak. "Ane bezalako ikasle ohiak ondoan edukitzeak argi erakusten du hori", adierazi du Arregik. Haren arabera, bide horretan gurasoak zein irakasleak izan dira proiektuaren oinarri: "Gurasoak beti aritu dira buru-belarri proiektuari forma ematen. Horrez gain, urte askoan lanean ari diren irakasleen landalde finkoa dugu musika eskolan, eta denon artean atera dugu musika eskola aurrera". Horien babesarekin, ilusioak eta esfortzuak eraman dute Bizkargi gaur egun dena izatera, eta hain zuzen, bi balio horiek dira duela lau hamarkadako musika eskola hartatik bizirik jarraitzen dutenak. "Musika zaletasuna transmititzea da gure helburua, eta lortu dugula uste dut, ikasleak gustura etortzen baitira eskolara". Afizio hori mantentzea edota handitzea da orain musika eskolaren beste erronka. "Behintzat, musika tresna ez dezatela txokoa utzita eduki; musikak beren bizitzan zati txiki bat izan dezala", adierazi du Alberdik.

Musika, emozioen giltza

Ostirala da, eta eskolako lasaitasuna hausten du barruko gela batetik entzuten den doinu ozenak. Uda ate joka den arren, abesti ezagun batek karnabaletara eraman ditu gelan bilduta dauden lagunak. Uztai bana eskuetan, dantzan ari dira zutik dauden zenbait lagun, baina aulkian eserita direnek ere jarraitzen dute abestiaren erritmoa. San Jose egoitzako egoiliarrek dira horietako asko, eta gaur, Helduen Tailerreko kideekin elkartu dira ikasturte amaierako jaialdian taularatuko duten saioa prestatzeko.

Bizkargik bezala, egoiliarrei zuzendutako Musikoterapia egitasmoak ere urteurren borobila du aurten, Azkoitiko musika eskola duela hamar urte hasi baitzen haiei zuzendutako saioak eskaintzen. San Jose egoitzako 11 lagunek osatzen dute taldea, eta horietako bat da Emilia Sanchez. Hark saioetan "gustura" parte hartzen duela esan du: "Oso gustura etortzen naiz eskoletara, eta pila bat gustatzen zait hemen egiten dugun guztia. Gero, oso pozik itzultzen naiz egoitzara". Ildo beretik hitz egin du Eufan Montesek ere: "Hemen dugun giroa aparta da". Luis Alberdik ere, antzera: "Umore ona da nagusi, eta Musikoterapiak bizitzeko poza ematen dit niri". Hunkituta entzun ditu hitzok Musikoterapia eskolen gidari Itsasne Fernandezek, jakin badakielako egoiliarrentzat "bereziak" direla saioak. "Egoiliarrei energia handia ematen die errutinatik irten eta musika eskolara joateak".

Doinu, erritmo, dantza eta abestien bitartez, askotariko arloak lantzen dituzte ikasleek, hala nola talde lana, tolerantzia, autonomia, memoria, entzumena eta arreta. Norberaren "mundu afektiboa aberastea" zein "emozioei lekua ematea" dira egitasmoaren helburu nagusiak, eta saioak bereziki dira onuragarriak adinekoen bizi kalitatea hobetzeko. Horretarako, bakoitzak dituen beharretan jartzen dute arreta: "Bakoitzaren beharrak aztertu behar dira, eta horiei erantzuteko eta denek onurak jaso ditzaten lan egin", esan du Fernandezek. 2019az geroztik da hura Bizkargiko Musikoterapia saioetako irakasle, eta igaro diren urteak "emankorrak" izan dira harentzat: "Atzera begira jarrita, esan dezaket pertsonengan onura handiak nabaritu ditudala".

Helduen Tailerrean ere eskaintzen du Musikoterapia Fernandezek. Haren esanetan, Azkoitiko zein Azpeitiko hainbat emakume "zoragarri" dira taldekideak. Gaurkoan bezala, batzuetan bi taldeak elkarrekin aritzen dira, eta horrek egoiliarrek "animatzen" laguntzen duela dio irakasleak. "Helduen tailerrekoak etortzen direnean, saioak oso politak izaten dira, eta egoiliarrek hunkitu egiten dira beti". Hurrengo saioa noiz izango den galdetuz amaitu dute gaurkoa, eta Fernandezentzat hori da egitasmoa "asegarria" dela erakusten duen ziurtagiririk onena. ■■■



Musikoterapiako kideak.

Izena izen, "geurea"

Testua: **Erredakzioa**. Argazkia: **Ane Olaizola**.

Bertakoa eta plurala, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. Horrela defini daiteke euskarazko toki komunikabide bat. Horrela defini daiteke MAXIXATZEN. Herriko gertaera garrantzitsuen berri eman du sortu zenetik, eta hain garrantzitsutzat jo ohi ez ditugun beste mila eta bat istorio handi eta txiki ere kontatu ditu. Gertaerak eta istorioak daude alde batean; bestaldean, bazkideak, irakurleak, erabiltzaileak, eragileak. Toki hedabide batek behar-beharrezkoak ditu horiek guztiak, eta herritarrek eta eragileek ere funtsezkoak dituzte MAXIXATZEN bezalako herri komunikabideak beren lana, iritziak zein salaketak plazaratzeko nahiz informatuta egoteko.

Eragileen sostengu, herritarren informazio iturri

Tokiko komunikabideen garrantzi hori argi dute, esaterako, Juan Ramon Alberdik eta Miren Alberdik. MAXIXATZENeko iritzi emailea da Juan Ramon, Azkoitiko AEK-ko irakaslea da Miren, eta biak dira MAXIXATZENen komunitatearen parte. MAXIXATZEN "espazio atsegin eta gertukoa" iruditzen zaio Juan Ramoni, "herritarrekin iritziak partekatzeko eta haien iritziak jasotzeko" aukera ematen dion heinean, "komunitate bateko partaide" sentiarazten duena. Tresna "baligarritzat" jo du Mirenek, batetik, beraien kontuen berri emateko; eta, bestetik, eskoletan material moduan ere erabiltzen dutelako. AEK-ko ikasleek MAXIXATZENeko berriak "gustura eta

erraz" irakurtzen dituztela esan du Mirenek; Juan Ramonek nabarmendu du, berriz, MAXIXATZENik gabe azkoitiarren ez luketela jakingo artean, musikan, literaturan, kirolean eta beste edozein diziplinatan trebea den zenbat pertsona dauden herrian. Herria "ardatz eta mami" izatean, beste edozein hedabidek baino informazio "zuzenagoa eta zehatzagoa" eskaintzen duela iritzi dio.

"Gainera, hedabide askea den aldetik, ez du inolako inposiziorik jasaten eta ezartzen, ezen, herritar orori iritzia emateko bidea eskaintzen dionez, esan daiteke herriaren hedabidea dela".

MAXIXATZENen berezitasuna zein den galdetuta, garbi du Mirenek: "Herritik, herrian eta herriarentzat sortutako hedabidea izatea. Horrez gain, berri bakoitzean herritarrek erantzuteko aukera izateak ere egiten du berezi. Herritarren foro izaera ematen dio aukera horrek, eta herritarron sarea osatzeko ezinbesteko tresna da". Euskara hutsezko hedabidea izateari ere balio handia eman dio irakasleak, batez ere belaunaldi gazteei begira: "Geure kontuak geure hizkuntzan kontatzen dizkigu, eta, horri esker, informazioa euskaraz jasotzea modu naturalean bizi dugu".

Urteetako lanaren poderioz egin du toki hori MAXIXATZENek azkoitiarren egunerokoan, urratsez urrats, talde lanean eta batzearen indarrean sinetsiz; horregatik, etorkizuna GUKA proiektuaren aterkipean ikusten du MAXIXATZENek, funtsari eusteko: bertakoa eta plurala izatea, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. ■



Juan Ramon Alberdi

**"ESPAZIO ATSEGIN ETA
GERTUKOA DA,
KOMUNITATE BATEKO
PARTE SENTIARAZTEN
DIDANA"**



Miren Alberdi

**"HERRITARRON
SAREA OSATZEKO
EZINBESTEKO
TRESNA DA
MAXIXATZEN"**

Taghiako herria eguzkiz blaitzeko

Marokoko Atlas Garaian dagoen Taghia herrixkako etxeak urez hornitu nahi ditu Taghia Eguzkiz Blai egitasmoak. Eguzki plaken bidez, herritik urrun dituzten ur deposituak jarri nahi dituzte martxan. Iñaki Arakistain eta Aitzol Ibarzabal dira proiektu horren atzean dauden lagunetako bi.

Testua: **Andoni Elduaen.**
Argazkiak: **Andoni Elduaen**
eta utzitakoak.

Iñaki Arakistain (Azkoitia, 1984) eta Aitzol Ibarzabal (Azpeitia, 1992) alpinistak eta eskalatzaileak dira, eta bi lagunek proiektu bat dute abian Taghian (Maroko). Taghia Eguzkiz Blai egitasmoaren sustatzaileak dira, eta beste hainbat lagunekin batera, Atlas Garaian dagoen herrixka horri lagundu ahal izateko proiektua gauzatu nahi dute lehenbailehen. Hain justu, Taghiako herritarrek beren etxeetan ura eskuragarri izan dezaten nahi dute. Itsas mailatik 1.900 metrora dago Taghia, eta herrixkaren atzean 4.000 metroko mendi bat dago. Ibaiaren eta mendiaren artean dago herrixka; ibai aldea berdea da, eta handik gorako lurra, hondarra. Ibarzabalen esanetan, imajinaezina da Taghia. "Marokori buruz aurreiritziren bat duen batek ezin dezake imajinatu Taghia nolakoa den; berdeagoa eta marroiagoa da, kontraste polita egiten dute". Taghiako biztanleak berberek dira, eta Arakistainek azaldu duenez, "mendialdean eta basamortuan soilik" eutsi diote haiek beren hizkuntzari.

Taghia Eguzkiz Blai proiektuaren sorburua 2021eko apirila izan zen. Taghiako herrian dauden hormak eskalatzeraz joan zen bikotea. Arakistainen "hirugarren aldia-edo" izan zen hura; Ibarzabalena, berriz, aurrenekoa. Bikotearen harridurarako, Taghiako Said mandazainak esan zien urtebete inguru-edo bazeramatela han atzeritarrik jaso gabe. "Paretako eskalatzaileontzat oso ohikoa da Taghiara joatea. Euskal Herritik hara bidaia egitea oso eroso da, ekonomikoa, eta gainera, jenderik ez baldin badago, paradisua da hura". Pandemia tarteko, "aske ibiltzeko zailtasun handiak" zeuden orduan, baina hala eta guztiz, bidaia egitea erabaki zuten. "Hemen ez zuten kasik irteten ere uzten. Hegazkinak bidaia egiten zituzten, ordea, eta Madrilan hegazkina hartu eta Taghiara iritsi ginen", azaldu du azkoitiarrak.



Aitzol Ibarzabal eta Iñaki Arakistain.

Bizipen hura "oparia" izan zen bikotearentzat; izan ere, eskalatzeko horma guztiak beraientzat izateaz gain, Saidekin nahiz haren etxekoekin beste egonaldi batzuetan baino harreman estuagoa egiteko aukera izan zuten. Herrixkan zeuden egun batean, Casablanca hiritik bidalitako elikagaien sorta bana iritsi zen herrixkako etxe bakoitzera, eta une hark zer pentsatua eman zien bi bidaiariei. "Halako irteeretan, eskalatzetik at, denbora asko egoten da hausnartzeko eta pentsatzeko". Hausnarraldi horietako batean sortu zitzaion bikoteari herri hartan laguntza eskaintzeko ideia.

Ettxera itzulera, ideia bultzatzeko

Eskalatu beharreko hormak eskalatuta, Euskal Herrira itzuli ziren bi lagunak. Arakistainek Tolosaldea LHI Lanbide Heziketako Ikastegian egiten zuen lan orduan, eta internazionalizazioaz hitz egiten hasi



ziren egun batean. Orduan atera zuen azkoitiarrak mahai gainera buruan zuen asmoa. "Eskola horretan arropa bilketak-eta egin izan dituzte atzerrian laguntzeko. Taghiako herria urez hornitzeko ideia atera nien mahaira, baina zerbait konkretua behar zutela erantzun zidaten". Azkoitiarra eta haren lagunak eskalatzeraz zihoazen egun batean, Taghiako Mohamedi –Saiden semea– idaztea pentsatu zuen Arakistainek. "Gauza bat da norberak buruan duena, eta beste bat, hango herritarrek sentitzen dutena. Mohamedi idatzi nion laguntzeko modua izango genukeela esanez. 83 bat etxek osatzen dute Taghia, eta Mohamedek guztien artean bilera bat egiten uzteko eskatu zidan. Astebetera-edo deitu zidan, eguzki plaken bidez etxe guztietara ura iristea behar zutela adieraziz".

Aurrez, Taghian ur hornidurarekin zegoen arazoa hobetzeko, Marokoko Gobernuak proiektu bat jarri zuen martxan; besteak beste, bi ur depositu eraiki zituen, eta gasoliozko motor batekin depositu batetik bestera ura garraiatzea zuten helburu, gero handik ura herri osora zabaltzeko. "Etxe guztietara dago zabalduta ur hoditeria. Ordea, motorrek herriaren goialdean dagoen depositura ez badute ura ponpatzen, alferrikakoa da guztia. Gainera, gasolioa hemengo prezioan dago. Behin egin zuten proba, baina gasolioaren litroa euro eta erdi ordaindu behar izan zuten", adierazi du Arakistainek.

Taghiako arazoa ez da ur gabezia; hango arazoa ura etxe guztietara iristeko azpiegitura falta da. "Herri aberatsa da Taghia. Asko bidaiatu dut Marokon zehar, eta oro har, urik ez da zabaltzen inon. Taghian, ordea, ur asko dute, eta horregatik, ezinezkoa da etxeetara urik ez iristea. Mendiko ura dute, sekulakoa, harri azpitik ateratzen dena". Bikoteak azaldu du egun taghiarrek oinez bide bat egin behar izaten dutela uraren bila joateko. "Herrixkaren behealdekoek ordu laurden bat behar izaten dute uraren bila joateko; goiko herritarrek, ordea, denbora gehiago behar dute joan-etorri hori egiteko. Haiek elurra egiten duenean jasotzen dute soilik ura, baina euririk egiten ez duenean, urik gabe gelditzen dira".

Horren aurrean, batetik, herrixkaren egoera zehatza nolakoa zen ikusteko argazkiak jaso zituzten bi lagunek, eta bestetik, Google Earth aplikaziotik ateratako herrixkaren planoak. Iazko udaberrian,



berriz, Arakistain Taghian izan zen, eta egoera sakonago ikusi ahal izan zuen. "Guztia grabatuta ekarri nuen handik, eta egin beharreko lana, izatez, ez da zaila. Herriaren gaineko deposituan mendixka bat dago, eta ez du ingurumen inpaktu handirik eragingo han eguzki plakak jartzeak; izan ere, eguzkia egun osoan dute han". Mendixkan eguzki plakak jarri nahi dituzte, handik behera lotura bat sortu eta eguzki plakekin erabiltzen den bonba berezi batekin aurrez instalatuta dagoen ur hoditeria baliatu. Hala lortu nahi dute ura herrixka osoan zabaltzea.

Bildutako dokumentazio guztia Tolosako eskolara eraman zuen azkoitiarrak, eta guztia martxan jartzeko moduan izan ziren. Elkarlanak bide eman zuen une hartan. Hori baino lehen, baina, dirua biltzeko finantzaketa kolektiboa oinarri zuen kanpaina bat abiatu zuten proiektuaren sustatzaileek, eta webgunea nahiz sare sozialetako profilak sortu zituzten. Eskolako arduradunek azkoitiarrari esan ziotenez, "bizitza osoan zain zeuden proiektu erreala" jaso zuten. Eta hain zuzen, une hartan hartu zuen proiektuak "bestelako martxa bat", eskolako modulu desberdinen arteko elkarlana abiatu baitzuten orduan.

Dirua biltzea, asmo nagusia

Taldearen asmoa da urriaren amaieran edo azaroaren hasieran Taghiara joatea eta proiektua gauzatzea. Horretarako, ordea, 50.000 euro inguru bildu behar dituzte. "Epeetan sartzeko, diru ekarpenak mila bider azkartu beharko du. Ordurako ezin bada, hurrengo urtera atzeratu beharko dugu lana, garai horretan eguraldi baldintzak ez dira-eta onak izaten". Dirua bildu, beharrezko materiala erosi eta irailean eskolan lehen proba bat egitea da haien asmoa. Aurrez, ordea, Taghiara eramango duten materialaren zerrenda igorri beharko diete aduanako kudeatzaileei.

Helburua ahalik eta lasterren betetzeko, bikoteak herritarrei egin die deia. "Argi dugu proiektu hau gauzatu egingo dugula; zorte pixka batekin, gainera, mundu mailan zabal daiteke. Guztion esku dago hori horrela izatea". Sustatzaileek dioten moduan, borondatek sortutako proiektua da Taghia Eguzkiz Blai, eta herriaren borondatek iritsiko da soilik bere gailurra zapaltzera. ■

Taghia herrixkako eta eskalatze hango hormetako zenbati irudi.

**TAGHIA HERRIXKAN
DUTEN ARAZOA URA
ETXE GUZTIETARA
IRISTEKO AZPIEGITURA
FALTA DA**

**EGUZKI PLAKEKIN UR
DEPOSITUAK MARTXAN
JARRI NAHI DITUZTE
TAGHIA EGUZKIZ BLAI
PROIEKTUKO KIDEEK**



SAREGILE BERRIEN AMARAUNA

Julen Portillo eta Nerea Rodriguez
EDUKI SORTZAILEAK

Gizartea eraldatzen ari den honetan, ogibide batzuek indarra galdu dute, baina berriak ere sortu dira. Azken hamarkadako saregile berriak bilakatu dira eduki sortzaileak. Julen Portillo eta Nerea Rodriguez zarauztarrak dira horietako bi: euskal TikTokerra da lehena; komunikazio politikoan aditua bigarrena.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Urtzi Oteiza**.



Zarauztarrak dira biak ala biak, eta badute beste zerbait ere komunean: eduki sortzaileak dira. Julen Portillo (1994) euskal tiktokerra da, eta Nerea Rodriguez (1978) komunikazio politikoan aditua. Rodriguezek hainbat entitatere sare sozialak kudeatzen ditu gaur egun, hori du momentu honetan ogibide. Portillo, berriz, denbora librean ibiltzen da TikTokera edukiak sortzen; diru sarrerak lortzen dituen arren, ezin du horretaz bizi.

Zer esan nahi du sare sozialetako eduki sortzailea izateak? Nolakoa da zuen eguneroko bizimodua?

J.P.: Ez dakit nondik hasi definitzen. Oso zaila egiten zait. Azkenean, noiztik aurrera zara eduki sortzailea? Edukia sareetara igo-tzen duen pertsona bezala definitzen dut nik nire burua; hau da, edukiak igo-tzen

dituen beste edozein bezala. Nire egunerokotasuna zera da: lanera joan, zortzi ordu bete eta denbora librean bideoak igo. Eta noski, disfrutatu.

N.R.: Nire kasua ezberdina da. Julenek bere sare sozialetan partekatzen ditu egiten dituen edukiak, baina nik beste pertsona batzuentzat egiten ditut edukiak. Eduki horiek askoz ere planifikatuagoak direla esango nuke, eta baliabideak ere, agian, ezberdinak dira. Nik eduki sortailea komunikatzeko beste bide bat bezala definituko nuke; eduki sortailea da sareetan edukiak sortzen dituen.

Bi ikuspuntu ezberdin azaldu dituzue. Zuen iritziz zein da zuen jardunaren alderik onena eta txarrena?

J.P.: Txarrena, jendeak zutaz barre egitea. Azken aldian, hori pertsonalki asko ari zait eragiten. Baina alde onak ere baditu. Positiboena herritarrei nire edukiak gustatzea dela esango nuke.

N.R.: Egunero abentura berri bat dagoela martxan da niretzat positiboena edo behintzat gehien gustatzen zaidana. Leku ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen du ogibide honek, eta esango nuke alderdi emozionala ere baduela, ikuspegi positibotik begiratuta. Okerrena, berriz, eduki bat egin eta ez funtzionatzea da nire iritziz. Adibidez, igotako edukia jende gutxi ikusten duen kasua aipatuko nuke. Hori bai, alde positiboak negatiboak baino gehiago dira nire ustez.

Nolabait esateko, besteen menpe ere bazaude. Batzuk saiatzen dira, baina arrakasta ez dute guztiek lortzen: zein da arrakasta lortzeko sekretua?

N.R.: Niri interesatzen zait eduki batek zer-nolako erantzuna edota babesa duen jakitea, hori izaten baita askotan lana ondo egin duzun seinalea. Dena den, ez da beti horrela izaten. Garrantzitsuena beti koherentzia mantentzea da, lan fina eta ona egitea. Izan ere, arrakasta ez dago hain nire esku. Profesionala ere izan behar duzu, eta ezinezkoa da, esaterako, bideo bat gaueko ordu txikitik igotzea. Ziur nago zuk ere kontuan hartzen duzun zerbait dela hori, Julen. Horrenbestez, egindako lan batekin gustura geratzea da arrakasta.

J.P.: Nereak esandakoa azpimarratu nahiko nuke. Askotan, sareetara igo aurretik, eduki batek arrakasta izango duela uste duzu, baina ez da hala izaten beti. Ni euskarazko edukia egiteko helburuarekin hasi nintzen egiteko honetan. Egun batean 50.000 ikustaldi izaten ditu bideo batek, eta hurrengoan, berriz, mila ikustaldi beste batek.

Edukiek arrakastarik izaten ez dutenean, eragiten al du zuengan?

N.R.: Harrotasun puntu horretatik, gure bihotzean eragiten duela esango nuke. Kontua da *influencer* handien kasuan askoz ere handiagoa dela eragina. Guk ez ditugu *influencer* horiek dituzten bezalako helburuak.

J.P.: Halako helburuak noski ez ditugula, baina arrakasta ezak badu eragina nigan. Orain ez hainbeste, baina izan ditut oso onak izan ez diren hilabete batzuk. Guztia begiratzen ibiltzen nintzen: jarraitzaileak galtzen nituen ala ez... Nire osasun mentalari kalte egiten ari nintzela ohartu nintzen momentu bat iritsi zen, eta hori makro *influencer* horiekin alderatuta, ez naizela inor. Ez dut imajinatu ere egin nahi nola eragingo dien arrakastak haiei.

N.R.: Makro *influencer*-ak metriken oso esklabo dira.

***Influencer*-en gaia jarri duzue mahai gainean. Gaur egun, gazte askok esaten dute handitan *influencer* izan nahi dutela. Askok, gainera, halako pertsonaiak dituzte idolotzat. Erraza al da sare sozialetako jardun horretatik bizitzea?**

N.R.: Saiatuta ez duzu lortuko inoiz *influencer*-a izatea; berezko zerbait eduki behar duzu. Gaur egun, hainbeste profilekin zaila da zurea zerbaitetik bereiztea. Zerbait ezberdina eskaini behar duzu edo bideo batek oso ongi funtzionatu behar du makro *influencer* bilatzeko. Gainera, marka asko mikro *influencer*-ekin hasi dira lanean. Gazteei esango nieke ez pentsatzeko izugarriko *influencer*-a izatearekin; izan zaitezte zuen kaleko edota auzoko *influencer*-ak.

J.P.: Bideo bat birala egitea ez da hain zaila gaur egun. TikTok ikustaldi asko izaten dituzte bideoek, baina behin ikustaldi asko lortuta, zaila da horretan mantentzea. Ez da hain zaila lehenengo bideoan originala izatea, baina asko egin behar baldin badituzu... Hor dago koska.



"Instagram da nire sare sozialik gustukoena; baina Youtube kontsumitzen dut gehien"

"Youtuben kanal garrantzitsu bat nuen, baina bideo guztiak borratu ditut"

"Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletatik ondo landu beharreko zerbait da."

Nerea Rodriguez

N.R.: Horri jarraiki, gaur egun dena ikusita dagoela gehituko nuke. Askotan, eduki txar asko saltzen dituzte, eta ildo horretatik ezin da tira.

Noiz ireki zenuen TikTokeko kontua, Julen?

J.P.: Pandemia hasi berria zela sortu nuen kontua, isilpean gainera. Hasieran lotsa ematen zidan TikToka nuela esateak, baina gero ikusi nuen herritarrei asko gustatzen zitzaizela, eta lasai hasi nintzen esaten. Gainera, lehen hala uste nuen eta orain ere bai, iruditzen zait sare sozial guztietan onena dela TikTok. Gaur egun, 9.000 jarraitzaile pasatxo ditut, eta edukiak euskaraz egiteko, ez dago batere gaizki.

Eduki guztiak euskaraz egiten dituzu. Zergatik?

J.P.: Hautu politikoa da, nire hizkuntza delako euskara. Askotan ematen du euskaraz ezin dela regetoia egin, ezin dela umorea egin... Baina euskal kultura ez da trikitia, bertsoak eta esku pilota bakarrik. Falta da euskarazko prentsa arrosa, adibidez. Falta da dena gure hizkuntzan egitea. Zergatik euskaraz? Galdera horri beste galdera batekin erantzungo nioke: zergatik ez?

Inoiz sentitu al duzu beste hizkuntza batean aritzeko beharrik?

J.P.: Ez. Orain dela gutxi ETB2ko *Akelarre* saiotik deitu zidaten, bideo laburpen bat egiteko esanez. Oso ondo iruditu zitzaidan proposamena, baina baldintza bakarra jarri nien: euskaraz egingo nuela. Zertarako egingo dut gaztelaniaz? Nire audientzia euskalduna da, eta sortzen dudana edukia haienezakoa da.

Sare sozial asko daude, baina zeinetan sentitzen zarete erosoen?

J.P.: Nik esan dut... [barrez].

N.R.: Nire sare sozialik gustukoena Instagram dela esango nuke. Hala ere, Youtubek txoko handi bat du nire bihotzean. Izan ere, bere garaian, Youtuben banuen kontu bat, jarraitzaile askorekin; oso ondo funtzionatzen zuen. Orain, bideo guztiak borratu egin ditut, txorakeria dezente egiten nituen-eta garai hartan. Gaur egun ere, Youtube Instagram baino gehiago erabiltzen dut. Dena den, lanean gehien erabiltzen dudana sare soziala da Instagram.

Zergatik utzi duzu alde batera Youtubeko kanala?

N.R.: Momentu batean egiten dituzu gauzak gustura, baina urte batzuk pasatu ondoren ez zara hainbeste identifikatzen pertsona horrekin. Izan ere, denok joaten gara garatzen eta aldatzen. Youtubeko kanalean banituen, esaterako, ile beltzarekin agertzen nintzen bideo batzuk, eta urte asko dira jada ez dudala nire burua ile beltzarekin ondo ikusten. Orduan askoz ere gazteagoa nintzen, eta ez nuen umerik; gaur egun beste pertsona bat naiz. Horregatik ezabatu nuen kanala. Garai berriak dira, eta edukia ere aldatu egin behar da. Lehen esan dudan bezala, orain Instagram erabiltzen dut batik bat, eta gehienbat lanerako, gainera; nireak ez diren beste profil batzuk kudeatzen ditut. Instagrameko kontu pertsonalari dagokionez, orain dela urte batzuk Telecincon aritu nintzen lanean, eta ordu-tik jarraitzaile asko ditut, baina argazki bakarra daukat igota. Momentuz kontua mantendu egin nahi dut. Agian, egunen batean hasiko naiz edukiak-eta igotzen.

Nerea, komunikazio politikoan aditua zaren aldetik, gomendiorik emango al zenioke Juleni?

N.R.: Bere marka euskara bada, horri eusteko esango nioke. Gaur egun oso zaila da besteen-gandik desberdintzea, eta marketin eta komunikazio arloetan aritzen garenok garrantzi handia ematen diogu markari.

Hizkuntza aipatu duzunez, zu, Nerea, gehiago aritu zara erdal munduarekin harremanetan...

N.R.: Bai, hala da. Nire ama hizkuntza gaztelania da, nahiz eta euskara ondo menperatu eta euskara erabili kalean zein lanean. Zerbait naturala izan behar duenez, sare sozialetan gaztelaraz hitz egitea ateratzen zait niri. Azken finean, bizitza errealean duzun egunerokoaren isla izan behar du sare sozialetan jartzen duzunak, ezin duzu artifiziale izan sareetan.

J.P.: Ñabardura bat egin nahiko nuke horren inguruan. Herritar askok pentsatzen dute nire ama hizkuntza euskara izan dela betidanik, baina ez da hala. Nire familian bi kide soilik gara euskaldunak: anaia eta biok. Gurasoak extremadurarrak dira, eta nik etxean gaztelaraz



"Zertarako egingo dut gaztelaniaz? nire audientzia euskalduna da, eta haientzat sortzen dut edukia"

"Duela hilabete batzuk psikologoan hasi naiz; sare sozialetako gauzak niregan eragina zutela ikusita"

"TikToketik diru-sarrerak baditut, baina gaur egun zaila da horretaz bizitzea"

Julen Portillo



hitz egiten dut, baina erosoago sentitzen naiz euskarazko edukia sortzen.

Irudiaren gaia aipatu duzue. Sare sozialetan ikusten den guztia ez dela erreala esan ohi da. Zer iritzi duzue horri buruz?

N.R.: Bi joera daude. *Influencer*-ek igotzen dituzten irudiak marketinari oso lotuta egoten dira, eta zentzu horretan, ez dute hainbesteko askatasunik izaten beraiek nahi dutena egiteko. Nik ez ditut inoiz marka handiak atzetik izan, eta halakoetan, naturalago izaten dira kontuak. Ez zara iragarki bat, pertsona bat baizik.

J.P.: Sare sozialetako Julen ez da pertsonaia bat, baina kalean baino gehiago esajeratzen dut. Askok uste dute txisteak egiten pasatzen dudala eguna, baina ez da horrela. Ni, berez, pertsona lasaia eta lotsatia naiz. Herritar askok ez dakite bizitza erreala eta sare sozialetakoa desberdintzen.

Markaren batek jo al du zuengana publizitatea egiteko eskatuz?

N.R.: Bai, baina markak baino gehiago agentziak dira guztiaren atzean daudenak. Agentziek nolabait marka ezberdinekin kolaboratzen dute, eta *influencer* jakin batzuekin hitzartuta edukitzen dute kontratua. Azkenean, negozioa da hori ere. Garai batean, agentzia batekin egin nuen lan, baina oso gutxi iraun nuen; hilabete bat, gutxi gorabehera. Ez dut horretarako balio.

J.P.: Markekin ez dut lan egin, baina izan ditut diru sarrerak, gehienbat, Eusko Jaurlaritzaren edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik. Izan ere, euskara sustatzeko hainbat egitasmo egiten dituzte horiek. Duela bi urte, nire produkzio bat alde batera utzi behar izan nuen, sareetan soilik jarduteko. Urte eta erdiz eutsi nion jardun hari, baina ikusi nuen ezin nuela bizitza harekin jarraitu. Oraindik ere izaten ditut diru sarrerak, baina oso ezberdina da; izan ere, gaztelaniaz aritzen diren *nfluencer*-en bueltan askoz ere diru gehiago mugitzen da. Hala ere, euskararen alde egiten den apustua gero eta handiagoa da, eta hori eskertzekoa da.

Diru sarrerak tarteko, presioa sentitu duzue noizbait?

N.R.: Orokorrean, ez. Baina lehen aipatu dudana agentzia harekin lanean hasi nintzenean, sen-

titu nuen nolabaiteko presioa. Haiek esaten zidaten zer egin behar nuen, eta hori ez zitzaidalako gustatzen hartu nuen haiekin lanean ez jarraitzeko erabakia.

J.P.: Nik ere ezetz esango nuke.

Sare sozialetan pertsonari ala haren itxurari ematen zaio garrantzi handiagoa?

N.R.: Pertsona guztiok gauza ezberdinak kontsumitzen ditugu sare sozialetan. Horrenbestez, pertsonaren eta jarraitzen dituzun profilen arabera, garrantzia ematen diozu gauza bati ala besteari. Lanean kudeatzen ditudan profiletan sortzen dudana edukia kontsumitzen duten pertsonak mezuari ematen diote garrantzia, adibidez. Gazteagoa nintzenean, aldiz, garrantzi handiagoa ematen nion irudiari. Gaur egun, denetarik aurkitu dezakezu sare sozialetan.

J.P.: Nik ez dakit galdera horri erantzuten, handi geratzen zait gaia.

Irudiak, orduan, badu gazteengan eragina?

N.R.: Zalantzarik gabe. Gainera, hori ez dut nik bakarrik esaten. Gaiaz ikerketa asko egin dira, eta adituek esaten dute sare sozialetan ikusten denak eragin zuzena duela gazteengan. Leku askotatik etor daiteke influentzia hori, gainera. Nik neuk ere erabili izan ditut filtro surrealistik batzuetan; halako gauzak eginda, gazte askok pentsa dezakete hori dela irudi erreala, baina ez da hala. Bestalde, sare sozialetan cyberbullyinga egiteko aukera dago. Eskoletan horri buruzko pedagogia lan handia egin behar da, eta gazteei erakutsi behar zaie egoera horiek nola kudeatu. Matematikako eskolen pare jarri beharreko gauza da hori. Gazteek tresnak behar dituzte, eta guk ere bai, baina urteekin gauzak ezberdintzeko buru gehiago izaten da normalean. Gaur egun ez du balio pertsona bat eskolara joan eta hitzaldi bat eskaintzeak; hori ez da nahikoa. Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletan ondo landu beharreko zerbait da.

Sare sozialetan aldaketarik ikusi al duzue azken urteetan?

N.R.: Bai, eta ez nik bakarrik, gizarte guztiak baizik. Gauzak nahiko bare zeudela pentsatzen genuenean, TikTok azaldu zen; Facebook, berriz, itzalean geratu da. TikTok iraultzailea izan da; bai musikaren munduan, bai marketin ar



loan... Lehen asko saltzen ziren eduki luzeak, eta gaur egun, gauza bat ikusten ez ditugu hogeituro segundo ere irauten. Facebook sortu zenean, lagun artean barre egiteko eta komunikatzeko erabiltzen zen, baina gaur egun, sare sozialak komunikatzeko tresna garrantzitsu bilakatu dira. Edonork ditu sare sozialak, herrialde desberdinetako presidente guztiek, adibidez; denek komunikatzeko erabiltzen dituzte beren profilak.

J.P.: Bai, aldaketa handia izan da. Gaur egun bizi dugun egoeran hogeituro segundo ere ez ditugu jasaten bideo bati begira. Pentsa, Youtubeko iragarki bat bera ere ez dugu ikusten. Oso zaila da guztia; izan ere, bi edo hiru segundo dituzu ikus-entzunleen begietatik sartzeko.

Hori kontuan izanik, nola moldatzen zara jarraitzaileen arreta lortzeko, Julien?

J.P.: Uste dut euskarazko edukiak egiten ditudalako lortzen dudala arreta piztea. Herri-tarrak hizkuntzarekin identifikatuta sentitzen dira. Gainerakoan, ez dut ezer ezberdina egiten. Horrekin jarraituta, esango nuke gaur egun ez dela hain zaila TikTok jarraitzaileak

lortzea. Hiru edo lau bideo biral egiten badituzu, nahikoa jarraitzaile eskuratzen dituzu.

Edozerk balio al du jarraitzaileak lortzeko?

J.P.: Edozerk. Askoren helburua ikustaldiak lortzea da, eta horretarako edozer egiten dute. Edukiak ikusita, edozer gauza pentsa dezakezu haiei buruz, baina beraiek gustura egoten dira bideoa ikusi izanagatik bakarrik.

N.R.: Edozerk balio du, bai. Gaur egun denetarik egiten du jendeak. Ez dakit ona ala txarra den, baina gure arreta bereganatzea lortzen dute. Neuk ere askotan ikusi izan ditut halako edukiak, ez dut gezurrik esango; are gehiago, argazki bat ateratzerakoan bizitza galdu dute sare sozialetako erabiltzaile batzuek.

J.P.: Nereak aipatutakoari gehituko nioke sare sozialek onartu egiten dutela horrelako edukiak zabaltzea. Hori agian, mugatu egin beharko litzateke, zer dagoen ondo eta zer gaizki zehaztu.

N.R.: Instagramen nahiko zorrotz dabilta mugekin, ezin duzu ezer erakutsi.

J.P.: Hala da. Emakume batek titiburuaren zati txiki bat erakustea ez dute onartzen Instagramen, baina gero jendeak ikaragarritzko gauzak egiten ditu eta horiek onartu egiten ditu.

N.R.: Horretan bat nator zurekin, Julien. Guztiok dakigu titiburuaren gaiak zer-nolako iskanbila sortu duen. Titiburuak erakusten uzteko mugimendu bat ere izan da tartean, baina ez dute ezer lortu.

Teknologia bere alde onak baditu, baina arriskuak ere bai. Horri lotuta, Nerea, bizi izan zenuen esperientzia nahiko gogor bat. Jendea ezagutzeko aplikazio batean identitatea ordezkatu zizuten...

N.R.: Bai. Pertsona bat nirekin jarri zen harremanetan, eta esan zidan Tinderren ikusi ninduela. Nik ez dut inoiz Tinder erabili, baina norbaitek Instagramen nituen argazkiak hartu eta profil bat sortu zuen Tinderren. Jada ez naiz oroitzen profil faltsu hartan jarri zidaten izenaz, baina A Coruña bakoitzeko nintzela zioen eta nituenak baino urte gutxiago nituela ere bai. Hori ikusita, salaketa jarri nuen, baina gaur arte ez dut ezer jakin gaiaz. Ez didate ez deitu, ez gaia aztertu dutenik esan, ez ezer. Horrekin esan nahi dudana da sare sozialetan jartzen dugunarekin ere kontuz ibili behar dugula; izan ere,

gero sareetan geratzen dira argazki horiek, eta auskalo nora iristen diren.

J.P.: Niri ez zait halako ezer gertatu, eta espero dut etorkizunean ere halakorik ez pasatzea. Uste dut halako gauzak erraztasun handiagorekin egiten zaizkiela emakumeei. Emakume baten irudiak gizon batenak baino gehiago saltzen du, zoritxarrez.

Sare sozialetan sexuen arteko arrakala hori badagoela pentsatzen al duzue?

N.R.: Bai. Sare sozial neutralez jardun gara, baina badira hain argiak ez diren beste batzuk.

J.P.: Bai, badago, eta ez nuke jakingo arrakala hori handitu edo txikitu egin den esaten. Only-Fans sare soziala nahiko zeresan ari da ematen zentzu horretan, adibidez. Ikaragarria da jendeak dirua irabazteko zer gauza egiten dituen... Sare horietan dauden pertsona guztiak benetan nahi dutelako al daude? Hori da nire galdera.

Halako sare sozial berriek beldurra ematen al dizute?

N.R.: Beldurra ez da hitza, baina erregulatu eta arautu egin behar dira horrelako gauzak. Gazteak daude tartean, eta pornografiak hitz egiten da askotan. Gaur egun kontsumitzen den pornografia min handia ari da egiten gazteengan.

J.P.: Sare sozial guztietan arautu behar dira gauzak, ez batzuetan bakarrik.

Emozionalki sortzen al dute eraginik sare sozialek?

N.R.: Bai, onerako eta txarrerako.

J.P.: Bai, dudarik gabe. Duela hilabete batzuk ikusi nuen sare sozialetako gauzek eragina zutela nigan, eta psikologoarengana joaten hasi naiz. ■



Ikusi eskusiban Julen Portillo eta Nerea Rodriguezari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Itxaropena



JOSE RAMON ARANBARRI

2022ko urriko Maxixatzen aldizkariak honako titular hau zuen: "Ikerketan dute esperantza". Irakurri bezain laster, burura etorri zitzaidan birus madarikatu baten erruz, azken hiru urte hauetan bizi izan duguna. Ahaztu egin badugu ere, 2020ko martxoan Osasunaren Munduko Erakundeak COVID-19aren pandemia deklaratu zuen. 2022ko maiatzean erakunde horrek emandako datuen arabera, pandemiak ia hamabost milioi pertsona hil zituen mundu osoan, gehienak 2020 eta 2021 urteetan.

Bada *This England* izeneko telesail bat, zeinak Boris Johnson Erresuma Batuko lehen ministroaren gobernua pandemia horren lehen urratsak nola bizi izan zituen erakusten duen. Zorionez, hiru urte beranduago, egungo egoerak ez dauka zerikusirik telesail horretan ikusten denarekin. Guztia zientziari esker, ikerketa zientifikoak lortu baitzuen epe labur batean SARS-COV-2 birusaren aurkako hainbat milioi bizi salbatu dituen txertoa.

Garai pribilegiatua bizitzen ari gara zentzu askotan. Batez ere, aurrerapen zientifikoaren esparruan. Ikerketa zientzia da, eta zientzia itxaropena. Zibilizazio bezala, gizaki eta gizarte bezala, gertatzen zaigunaren aurkako defentsa bakarra da zientzia. Ikerketari eta zientziari esker eman ditugu gizarte bezala

aurrerapausoak, eta horrela, azken mendean bizi itxaropena hirukoiztu egin dugu eta gaixotasun asko desagertu egin dira. Ikerketa eta zientzia dira bide bakarrak, batzuetan bide okerra hartzen badute ere, gizakien eta gizartearen bizi kalitatea hobetzen joateko eta pertsonen ongizatea garatzeko eta bermatzeko.

Zientziaren kontrara sasi-zientzia dago. Zientziak galderak egiten ditu, eta metodologia zientifiko baten bidez galdera horiei erantzuten saiatzen da. Aitzitik, zientziaz moztutako sasi-zientziak dena baieztatzen du, metodologiarik erabili gabe eta inolako dudarik gabe. Ikerketak eta zientziak itxaropena dakarzkigute; ukapen zientifikoak, aldiz, etsipena. Argudio zientifikorik gabeko ukapen zientifikoa arriskutsua da, eta ebidentziaren arrazoia ukatzea, tamalgarriaz gain, suntsitzailea.

Tamalez, irrazionaltasun antizientifikoak, arrazionaltasun zientifikoari kontrajarrita, gizarte babes harrigarria lortu du azkenaldian, aurreikusi ezin diren ondorioekin. Kontua ez

**IRRAZIONALTASUN
ANTIZIENTIFIKOAK
GIZARTE-BABES
HARRIGARRIA LORTU
DU AZKENALDIAN**

da ebidentzia ukatzea bakarrik, kontua da hori defendatzen eta inposatzen saiatzea hezkuntza eta kultura alde batera utzi dituen gizarte baten aurrean. Sasi-zientziek gizarte nitxo bat aurkitu dute bertan finkatzeko, eta sasizientifikoaren irrazionaltasuna errealitatea azaltzeko baliozkotzat hartu da.

Jesus Quintero zenak honela zioen: "Ikus-entzunezkoen garaipenaren eta inprimategiaren iluntzearen aroan gaude. Liburu bat bakarra irakurtzen ez duten pertsonak harro sentitzen dira, eta harro dabilta kultura kutsua duen ezer axola ez zaiela aldarrikatuz. Egungo letragabeak okerranak dira, ikasi baitute, karrerak baitutuzte; irakasteko aukera izan dute, baina ez dute jarduten. Kultura eza eta letragabeak dira egungo agintariak". Halaber, Johann Wolfgang von Goethe alemaniar erromantizismoko poetak horrela zioen: "Ez dago ikuskizun izugarriagorik ezjakintasuna ekinean ikusi baino".

Inoiz baino hobeto prestatuta egon arren, inoiz baino gehiago ikasi eta karrera eduki arren, ez dugu jarduten. Ondorioz, populismoan murgildutako gizarte bat bihurtu gara, eta aurrerantzean itxaropena gal ez dezagun, horri aurre egiteko era bakarra zientzian oinarritutako espiritu kritikoa lantzea da. ■■■

zur
 OGITARTEKOAK • SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
 ENTZALADAK • RAZIOAK
 GARAGARDO ETA ARDO ESKAINTZA ZABALA
 TERRAZA HANDIA
 ZUZENKO EMANALDIAK
 KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
 TABERNA
 ARTISAU PIZAK
 ENTZALADAK
 PINTXOAK
 PLATER KOMBINATURAK
 RAZIOAK
 OGITARTEKOAK
 ARDO ESKAINTZA ZABALA
 SOMU ETA ANGEKAK
 PIREDOAK
 LARUNGATETAN KINO ARTE PIKETA
 KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

ZERBER
BURDINDEGIA
 BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTIENTAKO GAIAK AURKITUKO DITUZU
 OURE BURDINGIAN, INDUSTRIA, ELEKTROZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
 ITURGINTZA, BIKOLAJESA ETA ABARREKO TREKNERIA; HALA NOLA,
 TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARFAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...
ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"
 NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA • 938 36 81 25
www.ferreteriazerber.com



Maiatzeko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 42. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Jaione Etxaniz** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta**. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekoa zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna ekainaren 16a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.

ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINTZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
 FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO



"Emakumeak beren artean saretzea da gure helburua"

IONE DE LA CRUZ AZPEITIKO EMAKUMEEN TXOKOKO TEKNIKARIA

Azken urteetan Azpeitiko Emakumeen Txokoko teknikaria da Ione de la Cruz azkoitiarra, eta emakumeak ahalduzko zein gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko lan egiten du. Gune horretako zerbitzuek asko eman diote azkoitiarrari: "Emakume bakoitza mundu bat garela ikasi dut".

Testua: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Uztarria eta utzitakoak**.

Azpeitiko Emakumeen Txokoko teknikaria da Ione de la Cruz (Azkoitia, 1993). Azpeitiko mugimendu feministan ibilia, gune horretan eskaintzen zituzten zenbait ikastarotara joaten hasi zen. Gizarte Hezkuntza ikasten ari zela, laugarren mailako ikasturte osoko praktikaldia Emakumeen Txokoa egin zuen, eta gero, lanean hasi zen bertan. Emakume etorkinen inguruko proiektu bat izan zen gune horretan egin zuen aurreneko lana: Geografiak. Orduz geroztik, hainbat lan egiten ditu azkoitiarrak.

Gaur egun, Azpeitiko Emakumeen Txokoa "denetarik" egiten du De la Cruzek, askotariko lanak izaten ditu: "Espazioa kudeatzea, kontratazioak egitea, ikasturteko programazioa osatzea eta elkarte zein eragile desberdinekin koordinatzea dira nire eginbeharrak". Hori horrela, txokoa "gune eta tresna" moduan erabiltzen dela argi du azkoitiarrak, betiere "ikuspegi feministatik" lana eginez. Bi helburu zehatz dituzte oinarri hartuta: "Emakumeen ahalduzko eta gizonen zein emakumeen arteko berdintasuna sustatzea".

Emakumeen Txokoko teknikari lanetan bost urte inguru daramatzan arren, urteen eraginez

aldaketak nabariak izan direla azaldu du: "Lehen baino pertsona gehiagoren ahotan dago feminismoa, eta jende gehiago zein anitzago hurbiltzen da gugana gaur egun". Aniztasun handiagoa egoteak beharrak ere areagotu egin dituela uste du, eta horrek aldaketak egitea bultzatu duelakoan dago: "Lehen, berdintasun politika batzuek emakume guztientzat balio zutela iruditzen zitzaigun, baina orain, argi geratu da hori ez dela horrela".

Zerbitzu ugari

Azpeitiko Emakumeen Txokoa hainbat eta hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, askotariko herritarrei zuzendutakoak: arreta zerbitzua, jabetza eskolak, ekintza puntualak, hitzaldiak zein ikuskizunak eta aholkularitza juridikoa, besteak beste. Udalaren Parekidetasun Sailak kudeatzen duen zerbitzua da Azpeitikoa, eta beraz, Emakumeen Txokokoak udaleko beste zenbait arlotako kideekin aritzen dira lanean, baita herriko zenbait eragilerekin ere. Liburutegi bat ere badute, eta gune hori Azpeitiko Udala Liburutegiarekin elkarlanean sustatzen dute. Horrez gain, ikuspegi feministarekin lan egin nahi duten taldeentzat ere zabalik egoten da espazioa.

Zerbitzuen artean, badira martxan jarri zituztela urteak diren batzuk. Esaterako, alfabetizazio





guneak zazpi urte inguru daramatza martxan, eta hasieratik talde ia berbera mantendu dela esan du teknikariak: "Emakume etorkinek gai desberdinak jorratzen dituzte saio horietan, gaztelera ikastea aitzakia gisa hartuta". Azpeititik, gainera, hainbat herritara zabaldu da gune hori, Azkoitira kasu, eta bi taldeak elkarlanean ere aritzen direla azpimarratu du De la Cruzek.

Haren esanetan, zerbitzu batzuk ez dituzte urtero aldatzen, baina gai desberdinak jorratzeko asmoz, askotariko materiala sortzen saiatzen dira. Zerbitzuak, gainera, ez dira espazio fisikora mugatzen, sare sozialetan ere aritzen baitira lantzen duten materiala zabaltzen: "Gai desberdinak landuz, herritarren artean eztabaidarako gaiak zabaltzen saiatzen gara".

Azpeitiko Emakumeen Txokoa bere lantokiaz haratago doan zerbait da azkoitiarrarentzat, eta proiektuak duen garrantzia azpimarratu du hark: "Emakumeak saretu ahal izateko gune seguru bat da Emakumeen Txokoa". Izan ere, teknikariaren arabera, gune horrek emakumeei bermatzen die bertan modu lasaian parte hartzea, baita izan ditzaketen ezinegonak konfiantzan kontatzea ere. Horrez gain, informazioa zein aholkularitza eskaintzeko zabalik egoten da gunea, eta ez emakumeentzat soilik.



Teknikari lanetan gustura aritzen bada ere, ogibideak "alde gogorrak" ere badituela azpimarratu du. "Hainbat gatazka tartean daudela egiten dugu lan, eta horrek laguntzen du errealitatearen inguruko beste ikuspegi bat izaten. Dena den, gertutasunez lan egiten saiatzen gara". Lanbideak ikasteko ere balio diola argi du azkoitiarrak: "Emakume bakoitza mundu bat garela ikasi dut".

Emakumeen Txokoaren jardunak gero eta emakume gehiago biltzen baditu ere, oraindik ez dute lortu hainbat kolektiborengana iristerik: "Aniztasun funtzionala duten emakumeengana, gazteengana zein adineko emakumeengana iristea asko kostatzen zaigu". Horren zergatia argi ez duen arren, azkoitiarrak jakin badaki gizartean oraindik ere badagoela feminismoaren eta berdintasunaren bueltako "mamu" bat. Dena den, hark azpimarratu duenez, Emakumeen Txokoko atearak zabalik daude hara joan nahi duten herritarrenentzat. Gainera, De la Cruzek azaldu duenez, herritar batzuek nahiago izaten dute beren kontuez modu anonimoan hitz egin, eta halako kasuetarako, Whatsapp zenbaki bat

Ione de la Cruz

- **Adina:** 29 urte.
- **Ikasketak:** Gizarte Hezkuntza eta Berdintasun eta Sexologia masterrak.
- **Lanbidea:** Emakumeen Txokoko teknikaria.
- **Teknikaria ez banintz...** sexu eta bikoteen terapeuta izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** lagunengana joatea.



badutela gogorarazi du, nahi duena beraiekin kontaktuan jar dadin.

Indarkeria kasuak

Emakumeenganako indarkeria matxista kasuak ugariak dira oraindik ere gizartean, eta horien inguruko lanketa ere egiten dute Emakumeen Txokoan. Azkoitiarraren hitzetan, hala ere, halako

kasuak Emakumeen Txokora ez dira zuzenean iristen, Gizarte Zerbitzuek artatzen dituztelako. "Indarkeria kasua larria bada, eta Udaltzaingoa zein Ertzaintzak bertan esku hartu badute, Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen dira". Emakumeen Txokoan, ordea, gaiaren inguruko informazioa eskaintzen dute: "Indarkeria kasuak gertutik bizi dituzten herritarrek etorri izan zaizkigu gurera, hala nola biktimaren gurasoak zein lagunak. Horiek informazio zein aholkularitza eske etorri izan dira eta laguntza eske nora jo dezaketen galdezka". Emakumeen Txokoan indarkeria matxista prozesuen "sozializazio lana" egiten dute ikastaroen bidez. Bestalde, Jabetza Eskoletan, "konfiantzazko giroa" sortu izan denean, zenbait indarkeria kasu identifikatu ahal izan dituztela ere azpimarratu du azkoitiarrak, eta halako kasuetan emakume horiei gertutasuna adierazten dietela eta beraiekin lanean hasten direla azaldu du.

Gaur egun, feminismoa "diskurtso politikoki zuzena" bihurtu dela argi du azkoitiarrak, baina hortik haratago doala azpimarratzen du. "Aldaketak ematea asko kostatzen zaigu, eta aldaketa estrukturalak ematea, are gehiago". ■

200.000 € -TIK AURRERA (BEZIK GABE)

Inork ez dizu gehiago emango

- Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua.
- 2 edo 3 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak.
- Terraza zabalak etxebizitzaren guztietan, bista irekiak.

GUZTIZ HORNITUTAKO SUKALDEAK ARMAIRUAK LOGELA GUZTietan BEROGAILUA, ZORU ERRADIATZALE BIDEZ

www.izarjai.com

grupo eibar
inmobiliaria

AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541
comercial@grupoeibar.com
www.grupoeibar.com

Margotu

Eman kolorea lagun
talde honi. Izar batzuk
ene marraztu itzazu,
gaua da eta.

Itzala

Zortzi itzal hauen
artetik zein ate da
zuzena?



GAIZVLLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLLUNP
VLLUNPIRAWUPSAMUJZIAWUP



Zeer?!

Ezaba itzazu VLLUNP,
WUP eta MUJ
guztiak eta iratxoan
gaineko esatera bat
agertuko zaizu.

DOMINOAN



Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino
zati honek zentzua
izan dezan.



Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta ardi bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



Engainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Azkoitiko abarketarien lan ordainezina

TESTUA: **KEPA ALBERDI**

ARGAZKIAK: **'AZKOITIA IRUDITAN'**

Azkoitian abarketa izenez ezagutzen ditugun oinetakoak beste leku batzuetan espartinak edo apretak izenekin ezagutzen dira. Espartzuzko zoru eta telazko gainaldea duen oinetako hori 1322. urteko agiri baten aipatzen da lehendabizikoz, *espartenyas* izen katalanarekin. Oinetako horiek tradizio handia izan dute oraintxe arte Pirinio inguruko herrietan, eta hortik dator inguru honetan ere hain errotuta egotearen arrazoia.

Denbora luzez, abarketen artisau fabrikazioa funtsezkoa izan zen Azkoitiko ekonomian eta gizartean. Hori horrela, Azkoitiak oso ospe handia hartu zuen abarketagintza industriari esker. Hortik, Azkoitia "abarketagileen herria" izenez ezagutu izana hainbeste hamarkadatan.

XIX. mendearen erdi aldera nekazaritza zen Azkoitian lanbiderik nagusia, baina industria pixkanaka indarra hartzen hasi zen, eta horrekin batera, tailer batzuk kokatzen joan ziren herrian. 1845ean, Jausoro txapel fabrika ireki baino urte bat lehenago, J.F. Artetxek abarketa fabrika bat jarri zuen martxan, baina XIX. mendearen amaieran sortu ziren abarketa sozietate industrial gehienak. Hala, 1870ean, sei eta hamabi langile artean zituzten 30 abarketa

tailer txiki ziren herrian, beren kabuz abarketa langintzan aritzen zirenak kontatu gabe.

Lantoki haietako batzuk lehen errotak zeuden lekuetan sortu ziren, presak mugitutako turbinaren indarraz martxan jartzen zirelako hango makinak; Sagrado Corazón izeneko lantegia, adibidez, Intxausti eta Baliasas izeneko bi abarketa errota fusionatu ondoren sortutakoa da. Urtez urte, kostu txikiagoan gehiago ekoizteko helburuarekin modernizatzen joan ziren lantoki txiki haiek, eta horrek bilakaera ekarri zuen abarketagintzan. Testuinguru horretan, Esteban Alberdi y Cia sozietatea eratu zen 1890ean; data horren inguruan sortu zen, baita ere, Mancisidor y Cia, eta urte batzuk geroago Epelde, Larrañaga y Cia. Lantegi horien eragina erabakigarria izan zen Azkoitiko abarketa industriak hurrengo urteetan indarra hartzeko, bertan, abarketagintzarako oinarritzkoa zen jutea lantzen hasi baitziren, kanpotik ekoiztutakoa ekartzea saihestuz. Izan ere, Pakistandik eta Indiatik itsasontziz Biboko portura sartzen zuten

**7.000 BIZTANLETIK,
ABARKAGINTZAN
ARITZEN ZIREN 3.000
LANGILE ZEUDEN
HERRIAN, 1922AN**

alpargatak egiteko oinarritzkoa zen jutea. Handik, Elgoibarrera edo Zumarragara trenez eramaten zuten, eta Azkoitiko lantegietara ekartzeko, "karreatze" lana idiz edo zaldiz tiratutako gurdiz edo orgaz osatzen zen.

Denbora gutxian, abarketagintza sektorean nagusi izatera heldu zen Azkoitiko industria. Horren adibide da Azkoitian lan horretarako 72 makina zeudela, estatu osoan beste 25 makina bakarrik zeuden bitartean; horietatik hamahiru, gainera, Gipuzkoan zeuden. Bada beste datu esanguratsu bat: 1922an, 7.000 biztanle inguru zituen Azkoitiak, eta horietatik, abarkagintzan aritzen ziren 3.000 langile zeuden: 1.250 pertsona lantokietan aritzen ziren, eta gainontzeko 1.750ek etxeetan jarduten zuten. Langile guztien %85a Azkoitiko zen, %13a Gipuzkoako beste herriren batekoa eta %2a kanpotik etorria.

Hala eta guztiz ere, Azkoitiko abarketa industriak ez zituen artisau ezaugarriak erabat galdu, eta lantegi haien lana osatuz, etxeetan, jarduera horretako parterik garrantzitsuenetakoa izango zen langile multzoa zegoen. Horrela, lantegirik garrantzitsuenetan, Esteban Alberdi y Cia eta Epelde Larrañaga y Cían, jutezko



kordatuak, abarketentzako oihalak eta josteko sokak egiten ziren, besteak beste. Mancisidor y Cia eta Sucesores de J.F. Artechén, berriaz, abarketa zoruak egiten ziren makinaz. Azkenik, etxeetan eta atarietan aritzen ziren langileek eskuz amaitzen zuten abarketa, horri oinaren forma eman ondoren gaineko oihala josiz.

Grebak, lan baldintzak hobetzeko

Aldi hartan, Azkoitiko enpresen lan baldintzak ez ziren egokiak eta bidezkoak langileentzat, eta horren ondorioz, hainbat grebak herria asaldatu zuten

1918-1923 urteen artean. Langileak asmo zehatzekin mobilizatu ziren: besteak beste, soldatak igotzea, makinistentzako zortzi orduko lanaldia ezartzea eta langabeziari zein kaleratzei buruzko neurriak hartzea eskatzen zuten. Etxeetan lanean aritzen ziren herritarrak izan ziren, lantoki txikietako langileekin batera, grebara jotzeko prestasun handiena zutenak. Izan ere, lantegi handietako langileek jarrera pasiboagoa zuten, enpresa beraiek sustatutako sindikatuek langileengan zuten indarra eta eragina handia baitzen.

Greba garai hartan, esanguratsua izan zen Azkoitiko langileek Sociedad Manufacturas de Alpargatas izeneko abarketa ekoizpenean ziharduen kooperatiba eratu izana. Kooperatiba sortzeak agerian utzi zuen nagusiaren kontroletik askatzeko eta beren ekoizpenaren jabe izateko langileek lanerako beste formula batzuk izateko borondatea zutela. Kooperatibak esperientzia iragankorra izan zuen, egindako produktuaren prezioa lehiakorra ez izanik, arazo handiak izan zituelako. Horrela, bi hilabeteren

ondoren, kooperatiba desegin egin zen.

Emakume langileek zeregin nabarmena zuten Azkoitiko industria jardueran, produkzioaren ehuneko estimagarria izanik, familia ekonomiarako oso beharrezkoa zen soldata osagarria eramaten zutelako etxera. Esan beharrik ez dago, orduan ere, emakumeek gizonen aldean gutxi kobratzen zutela lan berbera eginagatik. Halako egoera bidegabeak bizi arren, urte haietako grebetan emakumeek izandako jokabidea nabarmendu behar da: izan ere, egin ziren aldarrikapenetan parte hartze aktiboa izateaz aparte, 1920ko urriko istilueta jarduera ausarta eta adorea izan zuten, eta hainbat zauritu izan zen manifestazio nagusian ere buru joan ziren.

Lan munduan esku hartze aktiboa izan arren, langileen ikuskera zen emakume ezkonduak ez zuela industria jardueretan lan egin behar, eta "familia buruari" zegokiola familiaren sostengua. Horrela, emakume askok fabriketako lanari uzten zioten ezkondu eta gero, baina herriko ia beste emakume guztiak bezala, abarketa zoruei tela josten edo "erreportzaketa" lanean jarraitzen zuten etxean. Ezkondu ostean, etxe askotan normala zen emakumeak goizeko bost eta erdietarako jaiki, eta umeak eskolara joaterako, dozena pare bat abarketei tela jostea. Bestalde, herrian bazegoen enpresaren bat, zeinetara emakume baserritarrak joaten ziren

lanera, eta haiek etxera bueltaka ez ibiltzearren, enpresaren jabeak leku bat prest zuen lantegiaren goialdean, emakumeek eta haurrek lo egin zezaten.

Kalea ere lantoki

Herrian lantoki asko egon arren, herritar asko ez zen horietan aritzen, eta etxera eramane zituzten abarketa zoru sortak, "dozenie" deitzen zitzaiona bertan lantzeko. Horietako bost sortek "txortie" osatzen zuten; hortik "txortie eitten" esaera. Abarketa horiek "urdiketie" izeneko lana eginda etortzen ziren; hau da, oraindik forma eman gabeko zorua eginda bakarrik eramaten zuten. Hori horrela, etxeetan edo atarietan, abarketen zorua josten zen mahaitxo edo banku batzuen gainean, ezten baten bitartez oinaren forma ematen zitzaien. Ondoren, "erreportzaketa" lanaren txanda zen, hau da, abarketa zoruari tela jostearena. Lan horretarako, esku barrura goma batekin lotzen zen "zapatilla" izeneko tresna bat erabiltzen zen, joste lanetan titare lana eginaz. Normalean, abarketari forma emanez zorua josteko lana gizonetakoek egiten zuten, nahiz eta salbuespenak baziren. Abarketari tela jostea edo "erreportzaketa" zeregina, berriz, emakumeen lana zen.

Lan hori ez zen beti etxe barrutan egiten, eta garai batean, oso ohikoa zen abarkagileak beren etxeko atarietan "txortan" edo "erreportzaketa" lanetan ikustea, batez ere eguraldi ona zenean. Herriko txoko askotan

biltzen ziren taldeak, hala nola Plazaberrin, Goikokalen, San Martinen, Guardia kalean eta Aingeru kalean. Han aritzen ziren lanean kontu kontari. Arrosarioa ere bertan errezatzen zuten askotan. Horrela, giro ederrean aritzen ziren, lantegietan aritzen zirenak baino hobeto. Bestalde, etxeetan lan egiten zutenek, destajuan aritzerakoan, lantegietan baino diru gehiago ateratzen zuten, baina lantegiak seguruagoak ziren. Dena den, lantegietako jornalak baxu xamarrek zirenez, etxeko lan haiek oso baliagarriak ziren etxeko beharretara heldu ahal izateko. Baziren abarketei tela josten hasitako 10 urteko umeak ere, urte haietan egiten zen lan guztia gutxi baitzen familien beharrei aurre egiteko. Abarketa zoruak herriko abarketa dendatan jasotzen zituzten normalean, gero horiei etxean tela josteko. Ondoren, dendan bertan entregatzen zuten, eta saltokikoak dirua edo txartela ematen zieten, larunbatean dirutan kobratzeko. Denda horiek, Errebalean, Ipar kalean eta Plazaberrin zeuden, besteak beste. Bazen abarketa zoruak kanpotik ekartzen zituenik ere, gero etxeetara zabaltzeko, bertan "erreportzaketa" lana egin zezaten; Txantonekue zen horietako bat, esate baterako.

Abarketa tailer handiak, txikiak eta familiarrak izan dira Azkoitian, eta horiek lana eta soldata eman diete herritar askori urte luzez. 1940a inguruan, Azkoitian abarketentzako osagai edo



San Jose ermitaren atarian erreportzaketan.



San Jose ermitaren atarian erreportzaketan.



Porru eta Aingeru kaleen artean zorua josten.

abarketak egiten zituzten 53 bat lantegi zeuden, baina abarkagileak urritu egin ziren gero, eta gaur egun, abarketa guztia kanpoan ekoitzitakoa da, Errioxan eta Txinan, besteak beste. Azkoitian, Julian Iruretagoiena eta Arantxa Iturbe senar-emazteak eta horien seme

Juan Manuel *Pertxio* izan dira abarketagile lanbidea modu tradizionalan lantzeari heldu dioten azken azkoitiarrak. Familia Juin izeneko lantegiaren arduraduna izan zen joan zen hamarkadara arte, eta hura izan zen mota horretako azken tailerra Gipuzkoa osoan.

Azkoitiak ez du ahazten herriko milaka emakume eta gizon abarketariak egindako lan ordainezina, beren bizitzaren zati handi bat lanbide horretan eman baitzuten. Omen haiei, beren ahaleginarekin eta dedikazioarekin Azkoitiaren historia eta nortasuna josten lagundu zutelako. ■

Bakarrik



IRENE ELORTZA

Ez dakit nola gertatu den. Ez dut gogoratzen. Baina hemen nago, hilda, tanatorio triste honetan etzanda, eta inor ez dator ni ikustera. Harri eta zur (eta hoztuta) nago. Atzoko egunaz ondo gogoratzen naiz, baina bukaerak kale egiten dit. Ezin gogoratu. Filmekin ere beti gertatu izan zait. Ikusi eta denbora batera kontatzen hasi eta amaierarekin ezin akordatu. Interesa galtzen joaten naiz, nonbait.

Baina goaz atzoko egunera: beti bezala esnatu nintzen eta gosaltzen hasi orduko mugikorra ezkerreko eskuarekin ondo heldu eta korreoa eta sare sozialak errepasatzen hasi nintzen. Telelanean hasteko ordubete falta bazen ere, ordenagailua piztu nuen segidan, bestelako gestio batzuk egin behar baintuen. Bankuko aplikazioan sartu nintzen transferentzia bat egiteko. Urteak dira bankuko bulegoa zapaltzen ez dudala, a zer pagotxa! Ondoren, autoaren azterketa teknikorako txanda hartu nuen, nik aukeratutako egunean eta orduan. Erraz. Asteko erosketa egiteko nahikoa denbora banuela ikusita, *online* supermerkatua sartu nintzen eta erosketa etxera ekarri ahal izateko kopurura iritsi arteko ohiko produktuak pilatu nituen karro birtualean. Zeinen eroso bizi naizen kutxazainen zain ilaran egon gabe erosten dudanetik!

Osakidetzatik deituko zidatela gogoratu nuen, kontsulta telefonikoa lortu bainuen herenegun. "Auskalo noiz deitzen didaten", pentsatu nuen, "goizean zehar etxetik irteteko intentziorik ez dudanez, berdin zait". Lanari ekin nion. Zazpi ordu nituen aurretik, bazkaldu baino lehen. Eguerdi aldera telefono finko batetik deia jaso nuen. Medikua. Eman zidan emaitzen berri, azaldu nion egungo nire egoera eta errezeta elektronikoa egin zidan di-da batean. Nire karpeta birtualean aurkituko nuen informazio guztia.

Arratsalde partean pare bat errekadu egitera atera nintzen kalera. Igogailuan garajeko botoiari sakatu orduko, ahots batek "*cierre de puertas*" esan zidan. Autoari gasolina bota nion supermerkatuko auto-zerbitzu gasolindegian: "*Ha repostado usted gasoil*". Saltokiaren atarian dagoen kafe makinan *Cortado* aukeratu eta "*gracias*" entzun nuen. Kiroldegira joan nintzen ondoren. Bertan dagoen errolda ateratzeko makinari bisita egin nion, Ogasunak dokumentu hori eskatu didalako. Ideia oso ona iruditzen zait norberak errolda ateratzeko aukera ematea herritarrei. Gimnasioan sartu nintzen, soinu-ezeztatzailea duten aurikularrak jantzi nituen eta ordubete eman nuen izerdia botatzen. Zorionekoa ni, ez nuen inorekin kointziditu dutxan.

Atzera etxean, afaria prestatzeko nekatuegi nengoela sentitu nuen. Glovo bat egingo nuela erabaki, aplikazioan sartu eta handik ordu erdira afari japoniar osasuntsu baten aurrean nengoen. Handik aurrera gertatu zenarekin ez naiz akordatzen. Eta orain hemen nago, bakarrik... Hara! Nola ordainduko diet ehorztetxekoei? Bizuma edukiko al dute? ■■■

**ZEINEN EROSO BIZI
NAIZEN KUTXAZAINEN
ZAIN ILARAN EGON
GABE EROSTEN
DUDANETIK!**

BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.maxixatzen.eus/denda/

Jarrerak



IXABEL JAUREGI

Inguruko eta herriko hainbat albistek bultzatuta, hausnarketarako... Aitziber Arzallusek apirilaren 5ean idatzi zuen honako hau: "Azkoitiak du eskualdeko atzerritar tasarik handiena: %11,7. Herrian bizi diren hamar atzerritarretatik lau afrikarrak dira, hiru amerikarrak, eta gainontzekoak, asiarrak eta europarrak".

Joan zen abenduan argiratutako kale neurketaren aipamena egin nahi dut, kezkatutik: hamar lagunetik ia zazpi euskarazko elkarrizketetan ari ziren, %66,9 hain zuzen; gaztelaniaz, %24 eta %9,1 beste hizkuntza batzuetan.

Nire belarriak egunero ohartzen dira gure herrian euskararen presentzia urritzen ari dela, hala nola hainbat kaletan, bileratan, haurren jolas gunetan, tabernetan... Gure herrian euskara jakin gabe bizi daiteke. Eta zer esanik ez EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian.

Azkoitira orain dela mende erdi etorritako askok eta iristen ari diren askok ez dute euskara ikasi, ezta ikasiko ere, premiarik ez dutelako, interes ezagatik, trabak gainditu behar dituztelako: lan orduak, kontziliazioa, beren hizkuntzarekiko hurbilpen eza (zaila dela esan baitzaie). Beste lehentasun batzuk dituzte, askok ez dakite hemen bi hizkuntza ofizialak daudenik

ere. Erabateko egoera diglosikoan bizi gara.

Hizkuntza jarrerak etxean jasotzen dira hein handi batean, eta, horrenbestez, berebiziko garrantzia du gurasoen jokabideak, baita euskaraz jakin gabe ere: euskararekiko mezu positiboak ematea, ikasten ari direnean emandako urratsak goraiapatzea, euskararekin interesa azaltzea... Baina lehenbizi etxeko hizkuntza transmititu behar da. Eta euskararen transmisioak huts egiten duenean? Euskarak gutako bakoitza behar duela ahazten zaigunean? Jarrera kontuei lotuta, adibide modura, Zarautzen, Uemako herrian, etxeetara hitzun ekologistaren dekalogoak iritsi da, eta ez legoke gaizki begiratzea eta praktikan jartzea.

Bukatzeke, honako honekin uzten zaituztet: Zumaiako Eusebio Gurrutxaga plazan, Txilardegiren esaldi bat dago, Euskal Herrian Euskarazen logoak lagunduta: "Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe, ziur ezetz". Bitartean, esna gaitezen! ■

**BEREBIZIKO
GARRANTZIA DU
GURASOEN JOKABIDEAK,
BAITA EUSKARAZ
JAKIN GABE ERE**

Bertsoa paperean

Gaia: Selektibitatea
Izena: Haritz Alberdi
Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Ikasturtea pasa ondoren
etxeko lanez beteta,
USE frogako hasia dugu
ikasleok prestaketa,
batzuk lur jota, besteak fresko
baina gehienok erreta,
ez zaigu eta baliogarri
ekaineko azterketa,
behin bukatuta ikasitako
dena ahazten zaigu eta.

Atera nahian historiako
testu bakoitzari garra,
matematan zenbakiak ta
latin hizkuntza zaharra,
hainbeste orduz sarri gaitzen dut
gogoa eta indarra,
ta maiz lasaitze aldera izan
ohi dut pentsatu beharra,
ni ez naizela hori egingo
ta egin duen bakarra.

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak



www.milar.es

webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA

943-85 18 97

dyson v8 absolute

399 €



dyson cyclone v10

absolute

599 €



dyson

MILAR LARRAMENDIN

AURKI DITZAKEZU

DYSON PRODUKTUAK



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43